



Hitzak eta marrazkiak. Yolanda Arrietak ipuina irakurtzen zuen bitartean, Alamandrea istorioko protagonista marraztu zuen Leire Urbeltzek. Haurrek arretaz entzun zuten kontakizuna. Argazkiak: Andoni Canellada

dira, Alamandrearen zain. Bakoi-tzak musika tresna bana du esku artean. Hiru gitarra eta zehar flauta bat. Atzera kontua abiatzeko agindua eman du Arrietak. Hamar segundo igaro eta emanaldia hasi da. Lehen doinuak entzun bezain laster, sortzaileak izaki misterioitsu batekin ateratzen dira. Zuri-urdinez jantzita dago eta emakume itxura dauka, batez ere buruan daraman motots berdeari erreparatuta. Nolanahi ere, ez ditu gizaki oinak. «Hala, lurrean bezain ondo moldatzen da uretan», azaldu du Arrietak.

Behin eta berriro asmatu

«Erdi lamina, erdi amandrea den lagun mina». Alamandrea hara eta hona mugitzen ari den bitartean, ipuina ozenki irakurtzen hasi da Arrieta. Urbeltzek Alamandrea marrazteari ekin dio, zuzenean. Ikasleek erne-erne jarraitu nahi dute gertatzen ari dena. Haur asko bildu diren arren, irakasleek ez dute errieta egin beharrik. Oraingoan ez, behintzat. Gurasoekin nahiz aitona-amonekin kalean dabilzan ume txiki asko ere hurbildu dira.

Amarunen alamandrea-k sor-kuntza du hizpide. «Hondakinetik ere sor daiteke», nabarmendu du Arrietak. Izan ere, protagonistak besteak sobran dutenarekin eta zabortegira bota ohi dutenarekin sortu du bere etxea. «Dena asma daiteke behin eta berriro, gauza ederrak egin ditzakegularako besteentzat dagoeneko baliagarri ez diren gauzetatik abiatuta, betiere horretan sinetsiz gero».

Irakurraldiaren ondoren, galderen txanda heldu da, kazetariarekin egin ohi den bezala. Nola-



nahi ere, sortzaileek publikoaren iritzia jakin nahi dute aurretik. «Zer iruditu zaizue?», galdetu die Arrietak gaztetxoei. Zenbat buru, hainbat aburu. Batzuek barregarritzat jo dute. Besteek, ordea, nahiko beldurgarritzat. Gustuko izan dute birziklatzearen aldeko kontakizuna, oro har.

Nolanahi ere, biziki kezkatuta azaldu dira Alamandrearen lana bete duen aktoreagatik. Arnasa

ondo hartzen duen galdetu diote, besteak beste. Aritz Urbeltz eszenografo eta aktoreak darama mozorroa. Eta auzolanean, Markina-Xemeingo lagunak aritu dira agertokia apaintzen. Haurrek txalo zaparrada batekin eskertu diete egindako lana. Dena den, Alamandreak irudimenaren haitzulora itzuli behar du. Hor doa, Arrietaren eta Urbeltzen eskuetatik oratuta.

Fitxa

Izenburua: Amarunen


Alamandrea.

Idazlea: Yolanda Arrieta.

Marrazkiak: Leire Urbeltz.

Adina: Txiki nahiz handi

Argitaletxea: Gero-Mensajero



Irudien garrantzia

Literatura egiteko modu berri bat ezagutarazi diete egileek Markina-Xemeingo ikasleei. Izan ere, *Amarunen alamandrea* album gisa sortu dute. Genero berri honek berebiziko garrantzia ematen die irudiei. Albumaren sortze prozesuari buruz aritu dira.

Duela bi urte ezagutu zuten elkar Arrietak eta Urbeltzek. Ilustratzaileak bakardadeari buruzko kontakizuna garatu zuen Arte Ederretako ikasketak egiten ari zela. Arrietak haren lana ikusi bezain laster, liburuaren sortzeko proposamena egin zion. Hori baita album bat sortzeko lehen urratsa: istorioaren nondik norakoak irudien bitartez zehaztea. Testua ondoren gehitzen da. «Ipuinari olerki ukitua eman diot, musika izan dezan», gaineratu du Arrietak. Umeek, gazteek nahiz helduek goza dezakete liburuarekin. «Norberak asma ditzake xehetasunak. Ez duzu guztia zertan argitu», dio Urbeltzek.